

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. APARTAMENTUAK. 2019KO EKAINA

% 9,1 hazi dira EAEko apartamentu turistikoetako ostatu-gauak, 2019ko ekainean

Hotel, landetxe eta apartamentu turistikoetan % 5,5eko gorakada egon da ostatu-gauetan, ekainean

Euskadiko apartamentu turistikoetan erregistratu diren ostatu-gauak, 2019ko ekainean, 29.374 izan dira; alegia, % 9,1eko igoera egon da aurreko urteko ekainean egondakoen gainean, Eustatek prestatutako datuen arabera.

Ostatu-gauak Gipuzkoan gora egin dute (% 19,7) eta Bizkaian, % 6,7, baina, Araban, % 0,6ko beherakada egon da.

EAEko apartamentu turistikoetan bidaiarien 9.346 sarrera egon ziren 2019ko ekainean, alegia, % 11,0ko igoera egon da. Sarrera-kopuruak gora egin du Bizkaian (% 18,8) eta Gipuzkoan (% 12,6), baina, Araban, behera egin du (% 16,4).

Gaualdiak, sarrerak eta batez besteko egonaldia Euskal Aeko apartamentu turistikoetan. 2019ko Ekaina

	Gaualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia	
	2019/06	m/m-12 (%)	2019/06	m/m-12 (%)	2019/06	2018/06
EUSKAL AE	29.374	9,1	9.346	11,0	3,14	3,20
Estatukoak	18.453	0,7	5.889	7,8	3,13	3,36
Atzeritarrak	10.920	27,0	3.457	16,8	3,16	2,91
ARABA/ÁLAVA	7.303	-0,6	1.071	-16,4	6,82	5,74
Estatukoak	5.722	-14,0	940	-22,7	6,08	5,47
Atzeritarrak	1.581	128,3	131	103,3	12,07	10,75
BIZKAIA	11.225	6,7	4.518	18,8	2,48	2,77
Estatukoak	7.218	7,7	2.950	14,2	2,45	2,59
Atzeritarrak	4.007	4,9	1.567	28,7	2,56	3,14
GIPUZKOA	10.845	19,7	3.757	12,6	2,89	2,71
Estatukoak	5.513	10,9	1.999	20,3	2,76	2,99
Atzeritarrak	5.333	30,4	1.758	4,9	3,03	2,44

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Batez besteko egonaldia 3,14 egunekoa izan da azken ekainean, 2018koaren behetik, orduan 3,20 egunekoa izan baitzen. Araban igo egin da, iaz 5,74 egunekoa izan zen eta, aurtengo

ekainean, 6,82 egunekoa. Bizkaian batez besteko egonaldiak behera egin du (2,77 egunetik 2,48 egunera) eta, Gipuzkoan, batez besteko egonaldiak gora egin du (2018ko ekainean 2,71 egun eta, azken ekainean, 2,89).

2019ko ekaineko turisten balantzea: turisten sarrerek % 4,1 egin dute gora; Gipuzkoa da lider, % 10,2ko igoerarekin

Hotel, landetxe eta apartamentuetan, 323.628 sarrera erregistratu ziren 2019ko ekainean, alegia, % 4,1eko igoera egon da, aurreko urteko hil beraren aldean. Bizkaian EAEko sarrera guztien % 45,0 kontzentratzen da, baina sarreren baturak % 1,3 egin du gora. Gipuzkoan erkidegoko sarreren % 41,9 kontzentratzen da eta, bertan, % 10,2ko igoera egon da, Araban, EAEko sarreren % 13,1 kontzentratzen da, eta % 3,5eko beherakada izan du.

Turismo-establezimendu hartzaile guztietan izan diren ostatu-gauek % 5,5 egin dute gora. Gipuzkoan ostatu-gauek % 10,8 egin dute gora, Bizkaian % 2,9 eta Araban % 1,8 egin dute behera.

Gaualdiak eta sarrerak Euskal Aeko hotel, landa ostatu eta apartamentuetan. 2019ko Ekaina

	Gaualdiak		Sarrerak	
	2019/06	m/m-12 (%)	2019/06	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	648.553	5,5	323.628	4,1
Araba/Álava	82.205	-1,8	42.340	-3,5
Bizkaia	283.808	2,9	145.552	1,3
Gipuzkoa	282.539	10,8	135.736	10,2

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62